



Arartekoaren ebazpena, 2012ko abuztuaren 9koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio gizarte etxe eta kirol instalazioetako udal araudia ez betetzearen ondotik hasitako zigortzeko espedientea berrazter dezan.

Aurrekariak

1. (...) jaunak, haren semearen izenean eta ordeztuz, erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen ez baitzegoen ados Gasteizko Udaleko gizarte etxe eta kirol instalazioetako udal araudiarekin eta haren semeari ezarritako zigorrarekin.

Pertsona horrek adierazi digunez, udalak zigortzeko prozedura bat bideratu du haren semearen aurka udaleko kirol instalazioetan gertatutako hainbat jarduerengatik, oso larritzat jo direnak. 1500 euroko zigorra jaso du eta erkidegoaren aldeko ekintzekin ordezkatu da, eta kirol instalazioetako erabiltzaile, abonatu eta bazkide izateko eskubidea behin betiko galdu du. Neurri hori behin betikoa izatea gehiegizkoa iruditzen zaio, denboran mugatua izan beharko zela uste du betikotasuneko zigorra adierazi beharrean, izan ere, egoera hori denbora muga duten Zigor Kodeko eskubideen gabetze zigorrak baino larriagozat jotzen du.

Bestalde, badaki araudiak ez dituela jasotzen aplika daitezkeen aringarri eta salbuesleak. Horregatik, haren iritziz, edukia berrikusi beharko litzateke, alor hori erregulatzen duen araudi orokorraren arabera. Interesdunak horren berri eman du semeak zigorra eragin duten gertakariak buruko ahalmena asaldatuta zuzenean egin zituelako, beraz, ez zen bere ekintzen jabe ezta kontziente ere, diagnostikatuta duen nahasmendu bipolarren ondorio gisa, gertakariak jazo zirenean tratamendu psikiatrikoan baitzegoen. Egoera hori egiaztatu zen berak nahi izan gabe ospitale psikiatrikoan sartu zutenean, espedientean bermatu zuen moduan, zegokion auto judiziala eskainiz. Hala eta guztiz ere, ez ziren egoera horiek guztiak kontuan hartu zigortzeko espedientea ebazterakoan, dirudienez, besteak beste, zerbitzuko araudian xedatuta ez zegoelako.

2. Gasteizko Udalak gure informazio-eskaerari erantzuna eman zion Herritarrentzako Zerbitzuak eta Kirolak Saileko zuzendariak egindako txostena aurkeztuta, interesdunaren semeari hasitako zigortzeko espedientean aurrera eramandako izapideak laburtzen dituen eta arau-hauste oso larriaren ziozko zigorra ezarriz amaitzen dena, aurreko atalean adierazi dugunari jarraiki.

Aurrekariak ikusita, ebazpena ematea egokitzat jo dugu, ondorengoak kontuan harturik:



Gogoetak

1. Gasteizko Udaleko gizarte etxe eta kirol instalazioetako araudiak, instalazio horietako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak xedatzen dituenak (2006ko azaroaren 11tik indarrean), VI. tituluaren zigortzeko araubidea erregulatzen du.

Horrez gain, hizpide dugun zigortzeko espedientearen izapidean, kontuan hartu behar dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, zigortzeko ahalmenaren esparru orokorraren ondorioetarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, edozein zigor-arloko erregimen sektoriala aplikatzeko funtsezko arauak erregulatzen dituenak, autonomia erkidegoak eskumena duen arloetan.

2. Herritarrentzako Zerbitzuko arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpenak, 2012ko urtarrilaren 10ekoak, ebatzi zuen erreklamatzalearen semeari 1.500,01 euroko zigorra ezartzea eta udaleko kirol instalazioetan erabiltzaile, abonatu eta bazkide izateko eskubidea behin betiko kentzea, kontuan hartuta ez duela bete udaleko kirol instalazioak erregulatzen dituen araua, Gasteizko Udaleko gizarte etxe eta kirol instalazioei buruzko araudiaren 35. artikuluko d) letran xedatutako jokabide baten ondotik.

Ebazpen hori aurrekariak eta jarraian aipatuko ditugun zuzenbidezko oinarriak kontuan hartuta ematen da, interesgarritzat jotako alderdi horietan, zigortzeko espedientea legeari noraino egokitzen zaion baloratzeko.

Ebazpenaren bigarren aurrekarian jasota dagoenaren arabera, interesdunak, zigortzeko espedientea abiaraztearen ondotik emandako alegazio-izapidean, 2011ko abenduaren 7an alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, eta bertan hauxe zioen: *“Que si bien son ciertos los hechos descritos según los partes de incidencias que obran en el expediente, estos se produjeron cuando estaba sufriendo un episodio maniaco”*. Arrazoi horrengatik ospitalean egon zela adierazi zuen, hirugarrenei eragin ahal izan dien ondoezagatik damu dela esan zuen eta zigortzeko espedientea artxiba zedin eskatu zuen. Alegazioekin batera aurkeztu zuen ospitaleratzearen eta bilakaeraren txosten medikoak, gaixotasunaren diagnosia eta duela bi urte klinikaren hasierako aurrekariena egiteaz gain, honakoa zioen: *“Ante la negativa del paciente al ingreso, se procede a notificar la necesidad de ingreso involuntario”*.

Ebazpen proposamenak, 2011ko abenduaren 15ekoak, ez ditu onartzen interesdunak aurkeztutako alegazioak eta hitzez hitz dio *“ez dute indargabetzen ekintzen erantzukizun printzipioa”* eta interesdunari alegazioak aurkezteko aginduzko epea ematen dio. Interesdunak aurkeztutako alegazio-idazkiak berriro azpimarratzen du ez dagoela ados arau-haustearen tipifikazioarekin eta jarritako zigorra gehiegizkoa dela uste du eta esan du proposatutako zigor ekonomikoaren ordezkariaren aldeko lanak egiteko prest dagoela.





Horrez gain, ebazpenaren hirugarren zuzenbidezko oinarriak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea dauka hizpide eta, zehazki, arduradunei, egiletzari eta gertaera tipifikatuen arduradunen zehaztapenari buruzko 8., 9. eta 10. artikulua aipatzen ditu.

Artikulu horiek aipatu legeko II. kapitulukoak dira eta izenburu hauxe dauka: *“Zigortzeko ahalmena gauzatzeko arauorokor sustantiboak”*. Kexa honen ondorioetarako, 6., 7. eta 14. artikulua aipatu behar dira, erantzukizunetik salbuesteko kausak, erantzukizunaren inguruabar aldagarriak eta zigorraren erregimena eta aplikazioa, hurrenez hurren. Gure ustez, zigortzeko ahalmena baliatzerakoan aintzat hartu behar dira.

Hala, legearen 6.1 artikulua honakoa xedatzen du:

“Erantzukizunetik salbuestea dela eta, zigortzeko arauetan salbuesteko ezarriko diren arrazoi zehatzak kontuan izanda ere, Kode Penalean¹ jasota dauden egoerak ezarriko dira, baldin eta kasuan kasuko arauhaustearen eta kasuan kasuko arlokako araudiaren ezaugarriekin eta helburuarekin bateragarriak badira, eta, hala egokitzuz gero, araudian zehaztutako matizazioekin bateragarriak badira.”

Horrez gain, legearen 7. artikulua dio:

“1. Zigortzeko arlokako arauetan ezarritako inguruabarrak hartuko dira kontuan. Dena den, Kode Penalean jasota dauden inguruabar aringarriak ere kontuan izango dira, 6. atalean aipatzen diren baldintzak beteta².”

2. Hori horrela izanik ere, aringarri moduan kontuan eduki beharko da arauhauslearen erantzukizuna txikiagoa izatea eragingo duen edozein inguruabar, Kode Penalean edo ezartzeko den zigor-erregimena eratzen duten administrazio-arauetan berariaz jasota daudenekin analogia izan edo izan ez arren dena delako inguruabarrak. Hala ere, ondorio aringarriak dagoen edo ez jakin eta arintze hori zenbaterainokoa den ikusteko, arauhauste zehatza nolakoa den edo zein helburu zuen jakin beharko da, eta baita zein arlotako zigor-erregimena dagokion ere.

(...)

6. Beti ondorio aringarria izango du errugabetzeko arrazoiren bat egoteak, arauak errugabe uzteko eskatzen duen baldintzetakoren bat betetzen ez bada.”

¹ Zigor Kodeko 20. artikulua.

² Zigor Kodeko 21. artikulua.



Zigortzeko espedientearen ebazpenean, interesdunak osasun egoerari buruz egindako berariazko alegazioak gorabehera, eta txosten medikoa gehituta -bertan hainbat konturen artean adierazten da gaixoa gertakari maniakoaren ondotik larrialdi zerbitzuetatik bideratu ostean psikiatrian sartu dutela eta hark nahi izan gabe ospitaleratzeko premia jakinarazi dela-, ez dago jasota kontu horren inguruko balorazio arrazoiturik.

Zigortzeko espedientea izapidetzerakoan, udalak arau-hauslearen osasun egoeraren gertakari hori baloratu behar zuen, inguruabar horiek erantzulearen errua murriztuko zuen ondorioen bat edota zigorraren araubidearen eta aplikazioaren ondorioetarako erantzukizunaren salbuespena ote ziren xedatzeko, 6. eta 7. artikuluetan jasotako arauen arabera edo, bestela, dagokion arrazonamendu juridikoaren bitartez, ez zegoen zigorraren erruduntasuna eta aplikazioa aldatuko zuen inguruabarririk. Ondorio horietarako, legearen 14. artikulua ezartzen du kasu bakoitzean zigorra edo zigor horren hedatzea zehazteko, bildutako inguruabar astungarriak eta aringarriak ponderatuko direla eta, hainbat inguruabar astungarri edo oso kalifikatutako bat jazo gero -edozelan ere erruduntasuna murriztuko lukeen ondorio esanguratsu bat gertatuta-, zigortzeko organoak egindako arau-hausteari dagokion zigorra beharrean larritasun gutxiagoko arau-hausteei dagokiena aplikatuko du.

Gasteizko Udalak zigortzeko espedientea ebazterakoan ez zuen kasuan jazo ahal izan ziren inguruabar salbuesleak eta aringarrien ponderazio arrazoitua eta baterakoa egin. Horregatik, uste dugu izapidetutako espedientea ez datorrela bat zigortzeko ahalmena baliatzeko funtsezko arau orokorrekin eta, ondorioz, bidezkoa da espedientea inguruabar horien balorazio-izapidera atzera ekartzea, erreklamatzailaren semeak egindako alegazioak kontuan hartuta.

3. Izapidetutako zigortzeko espedientea berraztertzeko premiaren inguruan eztabaidaekin diren aurreko gogoeten kaltetan izan gabe, iruditzen zaigu egokia dela interesdunak aurkeztutako berraztertzeko errekursoaren ebazpena ere aztertzea.

Aurkeztutako berraztertzeko errekurtoa partzialki balioesten duen 2012ko otsailaren 8ko ebazpenak bigarren aurrekarian interesdunaren alegazioak jasotzen ditu eta, hala, hauxe dio: arau-haustearen tipifikazioarekin ados ez dagoela azpimarratu du; gertakariak jazo zirenean pairatzen ari zen nahasmendu bipolarren egoeraren ondotik jarritako zigorra neurrigabetzat jo du; esan du zigor zuzenbidean haren gaixotasuna salbuesletzat joko litzatekeela, administrazio-bidean estigmatizatzen den bitartean; gaixotasunaren bilakaeraren faseak eta aipatu gaixotasuna duen subjektuaren jokabidean dituen ondorioak deskribatu ditu; espedientea artxiba dadin eskatzen du edo proposatutako zigor ekonomikoa subsidiarioki erkidegoaren aldeko ekintzak eginez ordezkatzeko, horiek aurrera eramateko gai denean, preskripzio medikoak hala dioenean. AUTO JUDIZIALA aurkeztu du, 2011ko azaroaren 16koa, interesdunak nahi izan gabe ospitale batean sartzeari buruzkoa, hain zuzen, nahasmendu



psikiatrikoak edukitzeagatik, beharrezkotzat jotzen den tratamendu medikoa jaso dezan.

Errekurtsoak eta errekurritutako egintzak modu berean ebazten ditu alegazioak, ekintzen erantzukizun-printzipioa indargabetuta geratzen ez dela adieraztean: *“si bien se ha de considerar, en aras a la aplicación del principio de proporcionalidad, que en el Auto Judicial aportado se insta el internamiento no voluntario en centro adecuado porque ‘el interesado no está en condiciones de decidirlo por sí’”*. Aurrekoa gorabehera, ebazpen horrek ez ditu hizpide aurreko atalean jasotako zigortzeko ahalmena baliatzeko funtsezko arauak, ezta aplikatzen ere, eta zentzu horretan ere esan behar da ez duela zigortzeko legezotasuna betetzen.

Hala ere, berraztertze errekurtsoa partzialki baloratzen du, jarritako zigor ekonomikoa erkidegoaren aldeko lanak egitearekin trukatur. Lan horien izaera eta irismena egokiak izango dira arau-haustearen larritasuna aintzat hartuta. Hala ere, zigortzeko espedientea artxibatzeke uzia ez du onartzen, udaleko kirol instalazioetako erabiltzaile, abonatu edo bazkide izateko eskubidearen behin betiko gabetzea berretsiz, arau erregulatzaileraren ez-betetzea kontuan hartuta, araudiko 35. artikuluan oso larritzat jotako jarrera bat izaterakoan.

Gai horri dagokionez, azpimarratu behar dugu berraztertze errekurtsoaren estimazio partzian aplikatu den araudiko 46. artikulua hizpide duela espedientearen amaiera konbentzionala eta, aplikazioak eragin ditzakeen beste kontu formal batzuek gain, hauxe dio:

“Udal administrazioak auziperatuaren eskaera onesten badu, dossier zigortzaileari itundutako amaiera emango zaio; kasu honetan zehazten diren lanak egitea ez da zigortzat joko...”

lido horretan, zaila da onartzea erkidegoaren aldeko lanak eginez ezarritako diruzko zigorra ordezkatzeko dela. Beraz, hitzartutako zerbitzu hau ez da zigortzat jotzen, jarri zitzaion diruzko zigor nagusiaren zigor osagarritzat jo baitaiteke. Hala, araudiko 39. artikulua honako hau dio: *“Arau-hauste oso larrien kasuan 1.500,01 eta 3.000 euro bitarteko isunak jarriko dira, eta erabiltzaile, abonatu edo bazkide izateko eskubidea behin betiko galduko da”*.

Horregatik, uste dugu alderdi hori ere jorratu behar dela, hala badagokio, hizpide dugun zigortzeko espedientearen berrazterketan, 5. atalean adierazi dugunaren kaltetan izan gabe.

4. Halaber, egokia da agerian jartzea erakunde honek egindako informazio-eskaerari udalak eman dion erantzuna. Gasteizko Udalak Kirol Zerbitzuko txosten juridikoa, 2012ko apirilaren 2koa bidali digu. Bideratutako aurrekari eta izapideak labor-labor biltzen dituen txosten horretatik azpimarratu behar dira jarraian azalduko ditugun kontuak, aurreko gogoetetan adierazi dugun moduan zigortzeko espedientea berrikusterakoan eta atzera ekartzekoan kontuan har daitezten.





Txostenak dio interesdunak berraztertzeko errekurtsua aurkeztu arte ez zela interesdunak nahi izan gabe ospitalean sartzeari buruzko 2011ko azaroaren 16ko auto judiziala aurkeztu. Auto judizial horrek arau-hauslea psikiatrian hark nahi izan gabe sartzeko eskaera medikoa aintzat hartu eta onartzen du baina ez dugu ahaztu behar hasieratik interesdunak txosten medikoa aurkeztu zuela eta bertan jaso zela interesduna larrialdietatik psikiatriara bidali zutela gertakari maniako baten ondotik, hain zuzen adieraziz baimena eskatzen zuela nahi izan gabe baliabidean sartzea beharrezkotzat jotzeagatik. Horrez gain, txosten medikoa nahiko argitzailea da gaixoaren jokabideari eta gaixotasunari dagokienez.

Aurreko ataletan azaldu dugun moduan, izapidegileak aipatzen du baina ez du behar bezala eta arrazoi bidez baloratzen nahi gabeko ospitaleratze psikiatrikoaren gertakari garrantzitsua. Nolanahi ere, auto judizialaren ekarpena ere ez da kontuan hartzen administrazio egintza berrikusterakoan egoera mediku hori erantzukizuna salbuesten edo gutxitzen den kasuekin kontrastatzeari dagokionez, arestian aipatutako moduan, erruduntasun maila eta ezarri beharreko zigorra zehazteko.

Bestalde, erakunde honen informazio eskaerarekiko erantzunaren txosten honek, estreinakoz aipatzen digu otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 7. eta 14. artikulua, erantzukizunaren egoera aldatzaileak eta jazotako baldintza aringarri eta larrigarrien haztapena kontuan hartu direla adieraziz, egilearen erruduntasun mailaren eta zigorraren arteko oreka bilatuz. Hala eta guztiz ere, espedientearen azterketatik ez da jasotzen egoera horiek nola aplikatu edo haztatu direnaren arrazoibidea, erruduntasun maila eta dagokion zigorra aldatzen ez dutenaren ondorioa heltzeko, baina, nolanahi ere, egoera horien nahita ez espedientearen arrazoituak egon behar direla azpimarratu behar dugu, dagokion kontrastea bideratze aldera. Espedientearen izapidegilearen argudio bakarrak interesdunak bere gaixotasunaren inguruan egindako alegazioek bere ekintzen erantzukizuna indargabetzen ez dutela bermatzeko "zergatik ez duten indargabetzen" galderari erantzun behar dio.

Jasotako erantzunak, halaber, prozeduraren bi kontu formal aurkezten ditu zera dionean: *"Administrazioaren xedapen orokorren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean. Administrazioaren egintzen aurkako errekurtsoen oinarri bakarra administrazioaren xedapen orokor baten deuseztasuna bada, xedapen orokor hori eman zuen organoari aurkez dakizkioke zuzenean errekurtsu horiek"*. (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107,3 artikulua). Ondorioz, araudia xedapen orokorra denez, txostenak azaltzen du horren aurka ezin dela inolako errekurtsorik jarri administrazioaren bidetik, hala ere, hori ez da traba interesdunarentzat aipatutako 107.3. artikuluan aipatutako bidea jarraitzeko.

Izaera orokorreko xedapenen aurka zeharkako errekurtsua izenekoa onartzeaz gain egoera jakin batean aplikatzen delako, Arartekoaren esku-hartzeak oinarri gisa dauka administrazioaren jardura ordenamendu juridikora egokitzen denaren kontrol objektiboa, beraz, bere ikerketa kontrol helburu horietarako



egokitzat jotzen duen emaitza lortzera bideratuta dago, hau da, gure jarduera ezin da berraztertzeke errekurso gisa kalifikatu.

Erantzunak aipatzen duen bigarren kontu formala da erreklamatzailerak (zigortuaren aita) ez dela interesduna espedientean, arauak eskatzen duten moduan partikular batek diziplina izaerako administrazio prozedura batean parte hartu ahal izateko. Legezko interesdunaren izaera modu malguan interpretatu behar da eta murrizketarik gabe legebiltzarreko ordezkarien kexa izapideen prozeduraren esparruan, izan ere, murrizketa horiek gure ordenamenduan gaineratzen dira administrazioaren kontrolerako bitarteko klasikoen bidez barne hartu ezin diren eremuak betetzeko. Zentzu horretan, ez dugu inolako oztoporik aurkitzen udal administrazioak, erakunde honen argudioak kontuan hartuta, zigortzeko espediente ofizioz atzera eramateko gertakari urratzailean gertatutako egoerak baloratzeko unera, dagokion entzunaldiko izapide betez zigortuak bere adostasuna eman ahal izateko proposatzen den espedientearen berrikuspenarekiko.

5. Azkenik, erreklamatzailerak araudia aldatzeko egindako eskaera aipatuko dugu, neurritz kanpokotzat jotzen baitu zigor hau: *"privación definitiva del derecho de persona usuaria, abonada o socia de las instalaciones deportivas municipales"*. Erreklamatzailerak gehiegizkotzat jotzen du instalazioen erabilera gabetzearen neurria behin betikoa izatea, denboran mugatua izan beharko zela uste du betikotasuneko neurria adierazi beharrean, izan ere, egoera hori denbora muga duten Zigor Kodeko eskubideen gabetze zigorrak baino larriagozat jotzen du.

Kirol Zerbitzutik jasotako erantzunean txostenaren zuzenbideko laugarren oinarrian honako "oharra" gaineratzen da:

"Por los técnicos del Servicio de Deportes se hace constar, como aclaración a lo señalado por el artículo 39 del texto normativo citado, que dicho Reglamento se refiere al conjunto de 'Centros Cívicos e Instalaciones Deportiva'. Estos equipamientos reúnen una multitud de servicios a los se accede en diferentes regímenes de pertenencia. Así, dentro de estos Centros, existen servicios que contienen asociados; por su parte los servicios deportivos, tienen personas abonadas y personas que carecen de régimen, usuarias. Por ello, y dado que el articulado referido a sanciones se refiere a todos los Centros, se señala 'la privación definitiva del derecho de persona usuaria, abonada o socia', suponiendo dicha privación al respecto del régimen en el que encuadre el afectado.

La sanción de privación a la que hace referencia este informe, se refiere a la pérdida de la condición de persona abonada a las Instalaciones Deportivas, cualidad que le otorga mediante un precio público anual, 'privilegios' de accesos gratuitos o descuentos en cursos y/o actividades. Ello no implica que se prive a la persona del derecho a la utilización de las Instalaciones Deportivas en concepto de usuaria".



Teknikoen interpretazio hori, urratzailearen interesaren aldekoa izan zitekeen arren zigorra ez bailitzateke kirol instalazioak behin betiko erabili ezin izatea, eztabaidagarria da eta hainbat gogoeta juridiko aurkezten ditu.

Lehenik eta behin, arau-hauste berdin baterako zigor maila handiagoa edo txikiagoa ezarriko litzateke arau-haustea egin zen unean instalazioen erabilera erabiltzaile gisa edo abonatu gisa egiten zenaren arabera. Arau-hausleak, erabiltzaile gisa, ez luke inolako arazorik izango abonatu izateko eta, alderantziz berriz, arau-hausle abonatuari banakako erabiltzailearen baldintza ezartzen zaio, instalazioak erabili ohi dituen erabiltzaileari dagokion kalte ekonomikoarekin, beraz, interpretazio diskriminatzailea da arau-hausle abonatuarentzat.

Bigarrenik, interpretazio horrek ere ezartzen den zigor osagarriaren zentzua zalantzan jartzera eramaten gaitu, izan ere, praktikan, zigorrak ez luke oztoporik jarriko instalazioak erabiltzeko nahiz eta eduki ekonomiko altuago batekin izan arau-hauslea abonatua den kasuetarako, beraz, betiko kalte ekonomikoa ezartzen zaio instalazioak erabiltzen jarraitu ahal izateko.

Gure ustez, zerbitzuko teknikarien interpretazio hori kirol instalazioen erabilera debekatzeko aurreikusitako zigorrak aldi baterako epea izan ez dezan eta erabateko instalazioen erabilera debekua izan dadin saiitzen da. Kontu hori kontrastatu dugu hainbat udalek gaiaren inguruan egiten duten araudiarekin eta, guztietan ikusten dugu, arau-hauste bererako denboran mugatutako zigorra ezartzen dutela. Horrela bada, Donostiako Udalak ezarrita dauka arau-hauste oso larriagatik erabiltzailearen eskubideen eta instalazioen erabileraren gabetze bidezko zigorra urte batetik bost urterakoa izango dela. Zentzu berean, Bilboko Udalak ere gehienezko 5 urteko denbora muga ezartzen du abonatu baldintza galtzeko eta kirol instalazioetara sartzeko.

Gai horri dagokionez, azaldutako gogoeten arabera, erreferentziatzeko araudia berrikustea proposatzen da, instalazioen erabilera gabetzeko zigorraren graduazioa bideratu ahal izateko denbora muga bat ezarrita eta irismena argitze aldera (zigor independentea edo osagarria, erabiltzaile eta abonatuaren zehaztapena, etab.).

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

77/2012 GOMENDIOA, abuztuaren 9koa, Gasteizko Udalari egina

1. (...)ren aurka izapidetutako zigortzeko espediente berrikus dezan, zigortzeko ahalmenaren erabilerarako funtsezko arau orokorrak aplikatuz, bereziki salbuespen arrazoen azterketa eta erantzukizunaren egoera aldatzaileak aipatuz, egilearen erruduntasun maila zehazte aldera.





2. Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudiaren idazketa berrikus dezan, erabiltzaile, abonatu edo kide denaren eskubidearen behin betiko gabetzearen zigorrari dagokionean.

